



Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeko kide estimatuok:

Joan den urtarrileko gutunean adierazi bezala, zuekin jarri gara harremanetan 236/2015 y 237/2015 dekretuak ikasgelan ezartzeko behar izango dituzuen *egoera artxiboak* aurkezteko asmoz.

Gutun hartan hartu genuen konpromisua honakoa izan zen: 2015-2016 ikasturtearen lehen hiruhilekoan *Unitate Didaktikoak sortu eta ebaluatze Gida* garatzea, eta honen berri urtarilaren bukaeran igorritako gutunean eman genizuen. Bigarren hiruhilekoan, gure buruari ezarritako konpromisua *egoerak* lantzeko *hainbat artxibo* sortzea izan da. Zer dela eta? Gure ustetan, egoerok ardatz direlako kompetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteatzerakoan. Ekintza kompetenteak zera esan nahi du: erronka edota arazo litzatekeen hainbat egoerari aurre egiteko mota guztietako baliabideak era integratuan erabiltzea. Egoeren artxibo honetan, hezkuntza maila diferenteetako hainbat arlo eta gaietan zerikusia duten 80 proposamen dituzue.

Gainera, hirugarren hiruhilekoan zuei eskura jartzeko asmotan, unitate didaktikoen hainbat ereduren sormenean lanean ari gara. Bai unitate didaktiko hauek, bai egoera artxiboak arlo edo gaika antolatzeke asmoa dugu, eta hainbat hezkuntza mailatan erabiltzekoan izango dira.

Gauzak horrela, Haur eta Lehen Hezkuntzako zein Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren dekretu berriak ikasgela barruan nola landu jakiteko lagungarri izango zaizkizuen material horiek lortzeko bidea igortzen dizuegu. Dakizuen, Berritzeguneetako aholkulariak prest dituzue behar duzuen laguntza emateko.

Arazo-egoeren bilduma:

<http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/2-arazo-egoeren-bilduma/>

Gainera beste bide honetatik ere hel zaitezke helbide honetaraino:

1. Lehenik Hezkuntza Berriztatzeke webgunera jo:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_documento/dokumentuak.html
2. Hurren egin clic [Heziberri 2020 ikasgeletan bultzatzeko materialak](#) lerroaren gainean
3. Behin Berritzegune Nagusiko web-gunean, GIDAK ETA IKASGELARAKO TRESNAK atalean, egin click **Arazo-egoeren bilduma** dioen ikurraren gainean

Jaso ezazue nire agurrik beroena.

Gasteizen, 2016ko martxoaren 09an.

Begoña GARAMENDI IBARRA
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA